



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailak 30

Vitoria-Gasteiz, 30 de julio de 2018

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 2018-2020 URTEETARAKO MUGIKORTASUN ELEKTRIKOKO PLAN INTEGRALA ONETSI DU

- **494 MM euroko aurrekontua aurreikusten du, nagusiki garraio publikoaren elektrifikazioan, birkargarako puntuen sarea sortzean eta partikular, enpresa eta administrazio publikoentzako ibilgailu elektrikoak erosteko laguntzetan oinarrituta**
- **2018aren eta 2020aren artean egin beharreko 63 ekimeneko ekintza-plana jaso du, eta 2030erako proiektatzeko konpromisoa eta, horretarako, helburuak eguneratu eta ekintza berriak sartzeko konpromisoa**
- **2020rako egoera aurreikusten du, matrikulatutako 4.800 ibilgailu elektrikoekin eta Euskadin ahalmen handiko 35 birkarga-punturekin, eta garraio kolektibo elektrikoan bidaiarien % 20 haztea**
- **MEPI 2020k dibertsifikazio energetikoa bultzatzen du, sare elektrikoaren kudeaketa adimentsua sustatzen du eta automobilgintza-sektorearen industria-eraldaketa aberasten du, negozio-eredu berriak sortuz**

Gobernu Kontseiluak EAE-ko Mugikortasun Elektriko Plan Integrala zehaztu du mugikortasun elektrikoa balio-katea osatzen duten eragile publiko nahiz pribatuekin modu koordinatuan sustatzeko, Euskadirentzat mugikortasun-eredu iraunkorra bilatzeko, eta lurraldearen garapen sozio-ekonomikoari eta ezagutzaren sorkuntzari begira ekarpenak egin ditzala sustatzeko.

MEPI 2020k Euskadiko mugikortasun elektrikoaren egoerari buruzko diagnostikoa jaso du, eta ekintza-plana zehazten du, partikular, enpresa eta administrazio publikoetan eragina duten 63 ekimenekin.

Eusko Jaurlaritzak, mugikortasun-eredu jasangarriagoa izateko dagoen premiaren jakitun, plan horren hedapena idazteko konpromisoa hartzen du bere gain, 2030era artekoa izateko.

Nolanahi ere, MEPI 2020ren jarduketa-esparruak dokumentuan jaso den ekintza-eremua gainditzen du, eta, bereziki, [energibasque](#) estratergiaren esparruan indarrean dauden ekintza eta proiektu estratergikoekin lotzen da; estratergia horretan, aldi berean, [2030erako Energiaren Euskal Estratergiaren](#) eta [2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren](#) helburu eta ardatzak batzen dira, eta, aldi berean, RIS 3 Espezializazio Adimenduna

zehazten da, kontuan hartuta energia, bertan, jarduketa-eremu nagusietakoa dela I+G jardueran eta Euskadiren garapen teknologikoan.

Helburu estrategikoak:

- ✓ Euskadin **mugikortasun iraunkorrako** baterantz aurrerapausoak egitea, garraibide elektrikoaren eskaera eta erabilera areagotuz.
- ✓ **Tokiko ekonomia eta ezagutzaren garapena sustatzea**, ibilgailu elektrikoak nazioartean ezartzeak berarekin dakartzan produktu, zerbitzu, berrikuntza eta baliabideen beharrak arotzetuz.
- ✓ Gizarteak eta enpresek mugikortasun elektrikoaren bereganatzearen **aldeko ingurune bat sortzea** etsenpluaren, heziketaren, sustapenaren eta sentsibilizazioaren bidez.

Helburu estrategikoak kontutan hartuta, MEPI 2020-k 3 sektore gidalerro jarraitzen ditu ibilgailu elektrikoaren erabilera areagotzea, birkarga-azpiegitura sustatzea eta garraio publikoaren elektrikoaren bihurtzea, eta beste 4 zeharkako gidalerroak hartzen ditu, teknologiaren eta industriaren garapena; lege, arau eta erregulazioaren garapena; sentsibilizazioa eta informazioa ematea, eta heziketa eskaintzea.

Testuingurua 2020ari begira

- Ibilgailu guztien matrikulazio berrietatik % 4 elektrikoak izatea
- 2020an Euskadin matrikulatutako ibilgailu elektrikoaren parke osoa 4.800 dira
- Garraibide kolektibo elektrikoan (trena, tranbia) bidaiariak % 20 hazi dira
- Energia-kontsumoa murriztu egin da: 73,1 ktps/urtean
- GEI emisioak murriztu egin dira: 209,8 kton CO₂ /urtean
- Birkarga-sare publiko eskuragarria potentzia handiko 35 birkarga-guneetara hedatu da

2018-2020 Ekintza Plana

1. Ibilgailu elektrikoaren erabilera areagotzea partikularren, enpresen zein administrazio publikoaren kasuetan.

Euskadin, matrikulazio-kopuruaren igoera garrantzitsu bat izan dugu 2017. Urtean, nahiz eta 2017aren amaieran ibilgailu elektrikoaren parkean 1.143 unitate genituen, Euskadin erabili arren beste autonomia-erkidego batzuetan matrikulatuta dauden enpresako ibilgailuak eta renting ibilgailuak kontuan hartu gabe.

15 ekintza, tartean:

- Ibilgailuak eskuratzeko diru laguntzak eta 2020an Euskadin 4.800 ibilgailu matrikulatuta izatea
- 60.000 birkarga elektrikori hobariak ematea
- 15 enpresetako mugikortasun planak laguntzea
- Udaletxekin batera car/moto-sharing sistemak hedatzea
- Administrazio publikoei 100 ibilgailu elektriko lagatzea
- Eusko Jaurlaritzan, energia alternatiboen erosketa-zentrala sustatzea
- Lehiaketen %50 202an ibilgailu elektrikoen bidez izatea
- Enpresei beren flotak elektriko bihurtzen laguntzea 50 kasutan
- Gutxienez 2 hiritan e-taxi flota zerbitzuak sustatzea
- Taxi geltokietan eta logistika zentroetan, 5 birkarga-gune ezartzea
- Taxi elektrikoen erosketa bateratua egiteko proiektua garatzea
- Administrazio publikoek taxi elektrikoen erabilerari lehentasuna ematea eta e-taxi politikarekin 20 entitateen konpromisoa lortzea
- Bizikleta elektrikoentzat 50 aparkaleku zabaltzeko laguntzak
- Lan erabilerarako e-bizikleten 5 proiektu laguntzea
- Bizikleta erabilerarako sistema publikoak sustatzea eta 2 e-bizikleta sistema martxan jartzea aurreikusten da.

2. Birkarga-azpiegitura sustatzea

Denontzat eskuragarri dauden birkarga-guneen erabilgarritasuna faktore garrantzitsuenetako bat da ibilgailu elektrikoak merkatuan barneratzen joateko.

Euskadin azpimarratzekoa da birkarga-kudeatzaile bidez kudeatutako birkarga-gune publiko gehien dituen autonomia-erkidegoa dela. Gaur egun, 73 birkarga-gune ditu 42 tokitan (bide publikoan, aparkalekuetan, merkataritza-guneetan eta abar).

Hori dela, aurreikusita dauden ekintzen helburua da ibilgailu elektrikoen birkarga-sare bat eskuragarri egon dadila bermatzea, ibilgailu elektrikoen balizko erabiltzaileen premietara egokitua.

Ekintzak eta helburuak:

- Denontzat eskuragarri dauden potentzia handiko 35 birkarga gune sarea zabaltzea.
- Birkarga gune publikoak ezartzeko entitateei laguntza teknikoa eta ekonomikorako baliabideak eskaintzea eta eskuragarri dauden 315 birkarga-gune zabaltzea.
- Birkarga sareko informazioa argitaratzea
- Jabe anitzeko aparkalekuetan 50 instalaziori laguntza ematea
- Gaueko birkarga plazatan 500 birkarga gune instalatzea
- 65 enpresa pribatu eta 20 eraikin publikoetan birkarga gunean sustatzea

3. Garraio publiko elektriko bihurtzea

Euskadin, trenbide-garraioaren aldeko apustua, Euskal Trenbide Sare Berriaren garapenaren eta ETS-Euskotrenen beraren sarearen modernizazio eta hedapenaren bidez, % 100 elektrikoa den garraioaren aldeko apustu irmoa da, baina planaren helburua garraiobideak pixkanaka elektrifikatzen joatea da, zehazki, errepideko garraio publikoari beste hori gehitzea.

Ekintzak eta helburuak:

- Hirietako ibilgailuen flotak berritzerakoan sartzen diren ibilgailuen %50 elektrikoa erabiltzea da asmoa
- Gaitasun handiko garraio publikoa: hitzarmen bidez Bus Elektriko Adimentsuen 3 linea gauzatzea
 - Vitoria-Gasteiz (2. Linea TUVISAK kudeatuta)
 - Donostia/San Sebastián (28. Linea, DBUSek kudeatuta)
 - Leioa (Metro-Unibertsitatearen arteko lotura)
- Tren nahiz tranbia bidezko zerbitzu publiko elektrikoa areagotzea linea berriak ezarriz (Vitoria-Gasteizko Unibertsitate hegoaldeko eta Salburuako hedapenak eta Bilbo-ko Atxuri-Bolueta zabalkundea) indarrean dauden zerbitzuekin uztartuta zerbitzuak gehitzeko.
- **Errepideko salgaiak trenbidekoetara aldatzea** sustatzea eta, horretarako, azpiegituretako inbertsioak bultzatu eta plataforma multimodal berrien garapenean aurrera egitea, besteak beste, Jundiz edo Lezoren kasuak.
- Gutxienez **hiri-mugikortasun bertikaleko** 3 plan gidari bultzatzea Euskadiko udalerrietan.

4. Garapen teknologiko eta industrial

Mugikortasun elektrikoak aukera eta erronka berriak eskaintzen dizkio Euskadirko industriaren garapenari produktu berrien eskaintza eta zerbitzuetan, baita teknologia eta talentuaren inguruko aukerak ere.

Mugikortasun Elektrikoari buruzko Energibasqueren estrategiarekin bat etorritz, Euskadiko enpresei lagundu egin nahi zaie eskaintza berezi bat garatu dezaten, bai birkarga-azpiegituretan eta bai ibilgailuen osagaietan ere, eta halaber, irtenbide berrien garapen teknologikoa eta mugikortasun elektrikoaren inguruko negozio-kontzeptuak sustatu nahi dira

Nabarmendu beharra dago automozioaren sektorearekin (enpresa traktoreak eta industria osagarria) eta garraioaren sektorearekin hertsiki loturiko enpresa-

sare lehiakor eta berritzaile bat dugula Euskadin. Horrez gain, energia eta birkarga elektrikoarekin loturiko Industria garrantzitsua dugu, I+G+b teknologia-zentroen punta-puntako sare bat eta birkarga-azpiegitura gehitzeko eta energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko gaitasuna duen banaketa elektrikoaren sare bat.

MEPI 2020k energibasque estrategiarekin eta ZTBP 2020rekin bat egiten duten ikerketa-ildo batzuetan inbertitzeko ekintzak jaso ditu, aurretik esan bezala, eta horien aurrekontuek plan honetan jaso dena gainditzen dute.

Mugikortasun jasangarriaren inguruko arauketa eta sentsibilizazioa

Merkatuan ibilgailu elektrikoak duen sarrera gutxiko fase honetan, zenbait oztopo gainditu behar dira, eta mugikortasun-eredu berri hau zabaltzeko arauketa eta sentsibilizazioan aurrera egingo duten politika publikoak behar dira.

Gaur egun, Jasangarritasun Energetikoko Legearen proiektua eztabaidan dago Eusko Legebiltzarrean, onesteko, baina MEPI 2020k ibilgailuen erosketaren hobaria emateko pizgarri eta zerga-neurrien ekimen berriak proposatzen ditu, finantzaketa-tresnak, garajeetan birkargatzeko instalazioen legeztatzea eta Europako zuzentarauetara eta EAEn eragina duen Estatuko legeriara egokitzeko erraztasunak ematea.

Mugikortasun-eredu horrek egoera berria eta ezezaguna dakar, eta Eusko Jaurlaritzak eta Energiaren Euskal Erakundeak orain arte sustatutako komunikazio- eta sentsibilizazio-ekimenak sendotuko dituzte.

Prestakuntza-eremuko ekintzak

Azkenik, beharrezkotzat jotzen da prestakuntzako premiak identifikatu eta ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun elektrikoari lotutako teknologia garatzeko, fabrikatzeko, saltzeko, mantentzeko, konpontzeko eta birziklatzeko talentua prestatzeko beharrezko ekimenak proposatzea.

Horretarako, EAEn dauden prestakuntza-ildo arautuetan mugikortasun elektrikoa sartzeko eta mugikortasun elektrikoa jarduera nagusi ez duten baina ezarri beharra duten eragileentzako etengabeko prestakuntza-ekimen zehatzak garatzea proposatzen da.

- IE konpontzeko ziurtagiri profesionala sortzea
- LH/gradu/masterren 5 programatan, gutxienez, mugikortasun elektrikoa sartzeko.
- Ikertzaile eta teknologoak prestatzea
- IEei, birkargarako instalatzaileei eta beste hainbati buruzko 12 prestakuntza-saio.

MEPI 2020-ren aurrekontua

Plan honetan jasotako ekintzak abian jartzeko, **494 milioi** euroko aurrekontu bat behar da (bere estrategia eta aurrekontu propioa duen Energibasque kontuan hartu gabe).

Gidalerro estrategikoak	Kostuak GUZTIRA gidalerro bakoitzeko	EJ-EVE	Beste eragile publiko batzuk (Aldundiak, Udalak,...)	Eragile pribatuak
1. Ibilgailu elektrikoaren erabilera areagotzea	56.265	1.210	13.775	41.280
2. Birkarga-azpiegiturak sustatzea	9.350	2.910	525	5.915
3. Garraio publikoa elektriko bihurtzea	421.120	373.780	47.340	
4. Garapen teknologikoa eta industrialak	<i>Energibasqueren arabera</i>			
5. Legeak, arauak eta erregulazioak garatzea	6.620	6.620		
6. Sentsibilizatzea eta informazioa eskaintzea	380	380		
7. Heziketa	240	240		
8. Plana 2020-2030ra hedatzea	200			
GUZTIRA	494.175	385.140	61.640	47.195

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK BASOGINTZAKO BIOEKONOMIAN PROIEKTU PILOTUAK EGITEKO LAGUNTZAK ONARTU DITU

- **Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila praktika iraunkorrek bultzatzen ari da laguntza estrategia sendo batekin, Euskadi basogintzako bioekonomiaren alorrean Europako erreferente izan dadin, eta estrategia horren barruan sartzen dira laguntza hauek**

2018an basogintzako bioekonomiaren alorrean proiektu pilotu berritzaileak egitea bultzatzeko eta saritzeko laguntzak deitzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak. Guztira 300.000 euro bideratuko dira horretara, eta langileen, tresnen, materialen eta eraikin eta azpiegituren kostuak eta komunikazio eta dibulgazio jardueren ondoriozko gastuak finantzatzeko izango dira.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak praktika iraunkorrek laguntzeko daukan estrategia erabakigarrian sartzen dira laguntza horiek, izan ere, Eusko Jaurlaritzak kontziente da Euskadik petrolio ondorengo arorako trantsizioa bizkortu behar duela, eta ekonomia zirkularra hurbildu lehengai berriztagarriak eta baliabide endogenoak lehenbailehen erabiltzen hasteko.

Berez, Euskadiren asmoa da basogintzako bioekonomian Europako erreferente izatea, garapen sozio-ekonomiko iraunkorra lortzeko baliabide naturalak modu eraginkorrean erabiliz. Bide horretan aurrera egiteko, pasa den udaberrian jardunaldi bat egin zen Kursaal Kongresu Jauregian, basogintzako bioekonomian oinarritutako negozio ereduak jo eta eraldatzen jakin izan duten enpresa eta herrialde batzuen kasuak aurkezteko, euskal enpresentzat adibide baliagarria izan daitezkeelakoan.

Lan ildo posibleak

Basogintzako bioekonomiara igarotzeko Euskadik duen lan ildo posibleetako bat da jatorri biologikoko material berriak garatzea automobilgintzarako, aeronautikarako, eraikuntzarako eta beste sektore estrategiko batzuetarako, jatorri lignozelulosikoko materialetan eta konpositeetan oinarrituta. Basogintzaren gaur egungo hondakinekin produktu eta espezialitate kimiko berriak sortu daitezke, farmaziarako, modarako edo nekazaritzarako balio handiarekin. Beste lan ildo bat da bioteknologia industrialeko ahalmen teknologikoa eta enpresariala garatzea biomasaren eraldaketarako (gasifikazioa, pirolisia...). Bukatzeko, basogintzako bioekonomiarako bidean ezinbestekoa da turismo natural eta kulturalerako estrategiak sartzea, basoan oinarrituta.

Onuradunak eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Enpresa txiki, ertain edo handiak eta enpresa horien elkarteak eta ondasun komunitateak ere izan daitezke orain onartzen diren laguntzen onuradunak. Diruz lagundu daitezkeen jardueretako bat izango da basogintzako bioekonomiaren eremuan proiektu pilotu berritzaileak egitea, basoetako lehengaiak eta basoko produktuak eraldatu eta balio erantsiko produktuak sortzeko badira. Laguntzaren xede diren proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2018ko abenduaren 31ra arte izango da, alde batera utzita epea luzatzea onartu ahal izango dela.

Eskabideen aurkezpena eta epeak

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Laguntza eskaera <http://www.euskadi.eus> web helbidean egongo da eskuragarri, eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren bulegoetan aurkeztuko da edo legeak aurreikusitako lekuetako edozeinetan.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DU UPV-EHURI GIZARTE ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA BERRIKUNTZA UNIBERTSITATE-ESPEZIALISTAREN BEREZKO TITULUA LORTZEKO IKASKETAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA EMATEA

Gobernu Kontseiluak onartu du UPV-EHUri **Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza unibertsitate-espezialistaren** berezko titulua lortzeko ikasketak garatzeko diru-laguntza ematea. Akordioak zuzeneko diru-laguntza ematea aurreikusten du, gehienez 15.000,00 eurokoa, gizarte-zerbitzuetako berezko titulua ezartzearen ondoriozko gastuak finantzatzen laguntzeko, besteak beste, bekak, titulua ematen lankidetzan diharduten irakasle edo profesionalen ordainsariak, irakasleentzako ordainak irakaskuntzan jardutearren, zuzendaritza edo batzorde akademikoarentzako ordainketak, material didaktikoa, publizitatea eta propaganda etab.

Azken hamarkadan, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak** garapen garrantzitsua izan du lege- eta araudi-esparruan. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema birkonfiguratzeko eta garatzeko oso garrantzitsua izan da, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorro-dekretua eta EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapa onetsi izana.

Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen du **Eusko Jaurlaritzari dagokiola, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko dituen eskumenak aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku hartzen duten eragile eta profesionalen prestakuntza sustatu eta bultzatzea**, horretarako ezartzen diren jarraibide estrategikoen esparruan, bai eta gizarte-zerbitzuen arloko arretaren kalitatearen hobekuntza, berrikuntza eta ikerketa sustatzea ere.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Lege horren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019ko Plan Estrategikoak helburu du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak betetzeko beharrezko prestazio, zerbitzu, programa eta bestelako jarduketak planifikatzea eta, horrela, planaren jarduketetako bat etengabeko prestakuntza sustatzea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku hartzen duten profesional, erakunde eta entitateak birziklatzea da.

Bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) zuzenbide publikoko erakundea da eta gizartearen zerbitzura dago; autonomia du eta nortasun eta gaitasun juridikoa eta berezko ondarea du, bere eskumenen barruan, kalitatearen eta bikaintasunaren ezinbesteko konpromisoarekin, goi-mailako irakaskuntza-zerbitzua emateko,

irakaskuntzaren, ikerketaren, ikasketaren, kultura- eta unibertsitate-proiektzioaren, kudeaketa-prozesuen eta bertako jardueren oinarri diren zerbitzuen bidez.

Unibertsitate horren jarduera-esparruan, **graduondoko berezko tituluak daude**; horiek Unibertsitateak berak antolatzen dituen irakaskuntza espezializatuak dira, eta gizartearen eskari eta premietara egokitzen dira. Horiek goi-mailako tituludunen prestakuntza akademikoa osatzen dute, eta, horien bidez, profesionalentzako ezagutzak eguneratzen dira, lanbide-karreran aurrera egin edo berrorientatzeko.

UPV-EHUren Gobernu Kontseiluaren 2018ko ekainaren 7ko akordioaren bidez, 2018-19 ikasturterako berezko tituluen eskaintza berria onetsi da; horien artean, Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza unibertsitate-espezialistaren berezko titulua dago; Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean ematen da.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, bere eskumenak baliatuta, interes publiko eta gizarte-interestzat jotzen du **Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza unibertsitate-espezialistaren berezko titulua ezartzearen** ondoriozko kostuen finantzaketan laguntzea.

Graduondo horrek interesa eta garrantzia du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren mailetan kudeaketarako, zerbitzuen diseinu, plangintza, ebaluazio eta berrikuntzarako eta testuinguru berri horretan pertsonak eta gizarte-taldeak kudeatzeko unibertsitate-titulazioa duten pertsona eta **profesionalei prestakuntza espezializatua** eskaintzen zaielako.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DU UPV-EHURI ETIKA SOZIOSANITARIOKO UNIBERTSITATE-ESPEZIALISTAREN BEREZKO TITULUA ESKURATZEKO IKASKETAK GARATZEKO ZUZENENKO DIRU-LAGUNTZA EMATEA

Gobernu Kontseiluak onartu du UPV-EHUri **Etika soziosanitarioko unibertsitate-espezialistaren** berezko titulua lortzeko ikasketak garatzeko zuzeneko diru-laguntza ematea. Horretarako, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak 15.000,00 euro bideratuko ditu, “etika soziosanitarioko unibertsitate-espezialista”ren berezko titulua ezartzearen ondoriozko kostuak finantzatzera, besteak beste, bekak, titulua ematen lankidetzan diharduten irakasle edo profesionalen ordainsariak, irakasleentzako ordainketak irakaskuntzan jardutearren, zuzendaritza edo batzorde akademikoarentzako ordainketak, material didaktikoa, publizitatea eta propaganda etab.

Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen du **Eusko Jaurlaritzari dagokiola, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko dituen eskumenak aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku hartzen duten eragile eta profesionalen prestakuntza sustatu eta bultzatzea**, horretarako ezartzen diren jarraibide estrategikoen esparruan, bai eta gizarte-zerbitzuen arloko arretaren kalitatearen hobekuntza, berrikuntza eta ikerketa sustatzea ere.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Lege horren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019ko Plan Estrategikoak helburu du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak betetzeko beharrezko prestazio, zerbitzu, programa eta bestelako jarduketak planifikatzea eta, horrela, planaren jarduketetako bat etengabeko prestakuntza sustatzea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku hartzen duten profesional, erakunde eta entitateak birziklatzea da.

Bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) zuzenbide publikoko erakundea da eta gizartearen zerbitzura dago; autonomia du eta nortasun eta gaitasun juridikoa eta berezko ondarea du, bere eskumenen barruan, kalitatearen eta bikaintasunaren ezinbesteko konpromisoarekin, goi-mailako irakaskuntza-zerbitzua emateko, irakaskuntzaren, ikerketaren, ikasketaren, kultura- eta unibertsitate-proiektzioaren, kudeaketa-prozesuen eta bertako jardueren oinarri diren zerbitzuen bidez.

Unibertsitate horren jarduera-esparruan, **graduondoko berezko tituluak daude; horiek Unibertsitateak berak antolatzen dituen irakaskuntza espezializatuak dira, eta gizartearen eskari eta premietara egokitzen dira**. Horiek goi-mailako tituludunen prestakuntza akademikoa osatzen dute, eta,

horien bidez, profesionalentzako ezagutzak eguneratzen dira, lanbide-karreraren aurrera egin edo berrorientatzeko.

UPV-EHUren Gobernu Kontseiluaren 2018ko ekainaren 7ko akordioaren bidez, 2018-2019 ikasturterako berezko tituluen eskaintza berria onetsi da; **horien artean, Etika Soziosanitarioa unibertsitate-espezialistaren berezko titulua dago; Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean ematen da.**

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, bere eskumenak baliatuta, interes publiko eta gizarte-interestzat jotzen du Etika Soziosanitarioa unibertsitate-espezialistaren berezko titulua ezartzearen ondoriozko kostuen finantzaketan laguntzea.

Titulu honen bidez, sektoreko profesionalek beren ezagutza teorikoak eta praktikoak eguneratuko dituzte eta, horretarako, gizarte- eta osasun-errealitateko benetako arazo konplexuak ikuspegi etikoarekin konpontzeko eskumenak areagotuko dituzten metodologiak baliatuko dituzte. Ondorioz, euskal gizartearen bilakaera eta garapena baliatuko da, gizarte-inklusionarako eta -bazterketarako mekanismoena, gizarte- eta osasun-zerbitzuen koordinazioa hobetzeko proposamenetik.

Enplegua eta Gizarte Politikak

ARTOLAZABALEK GOBERNU KONTSEILUARI SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEI IMMIGRAZIOAREN ARLOKO LANGILE TEKNIKOAK KONTRATATZEKO ETA JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN BERRI EMAN DIO

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari **sektore publikoko erakundeei immigrazioko** langile teknikoak kontratatzen jarraitzeko eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren inguruko **jarduerak** garatzeko **diru-laguntzak emateko oinarriak** onesten dituzten aginduen berri eman dio, eta 2018. urterako deialdia egin da.

Helburua 2018rako sektore publikoko erakundeei immigrazioko langile teknikoak kontratatzen jarraitzeko eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren inguruko jarduerak garatzeko zuzendutako laguntza ekonomikoak arautu eta deitzea da.

Interesa duten erakunde publikoek prozedura honetako izapide guztiak eskatu, zuzendu, justifikatu eta egin ahalko dituzte, baliabide elektronikoen bidez. Aginduaren zenbatekoa, guztira, **880.000,00 euro** dira, honela banatuta: **616.000,00.-euro 2018ko ekitaldian eta 264.000,00.-euro 2019ko ekitaldirako.**

Diruz laguntzeko aginduak bi laguntza-lerro ditu: immigrazioko langile teknikoak kontratatzen jarraitzeko eta **immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren** inguruko **jarduerak** garatzeko. Laguntzen onuradun izan ahalko dira, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren inguruko jarduerak prestatu edo gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak, mankomunitateak, kuadrillak, partzuergoak, eskualdeak, eskualdeko garapen-agentziak eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuk, toki mailakoak edo udalerrietako elkarteak.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

650.000 EURO ENPRESEI ETA PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZETAN PROIEKTU BERRITZAILEAK LANTZEKO HIRIEN ERABERRITZE INTEGRALERAKO JARDUKETETAN - "HIRIKO HABITATA"

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolaren Agindua onetsi du Gobernu Kontseiluak. Agindu horren bitartez, diru-laguntzen deialdi bat egiten da, pertsona fisikoei, enpresei edo enpresa-elkarteei zuzendua, hiriak eraberritzeko eremuan proiektu berritzaileak landu ditzaten. Proiektuek alderdi hauetara bideratuta egon behar dute:

- Premia teknologikoak eta materialak identifikatzea eta haiei lehentasuna ematea.
- Ekonomiaren garapenean (ikaskuntza, prestakuntza, enplegua eta abar) oinarritutako proposamenak identifikatzea eta garatzea.
- Gizartearen partaidetza- eta berrikuntza-mekanismo eta finantzaketa-mekanismo berritzaileak diseinatzea, garatzea eta gauzatzea.
- Nazioarteko benchmarking azterlanak formulatzea eta garatzea, eta proiektu espezifiko gisa Europako Batzordearen deialdietan aurkeztu ahal izango diren proposamenak formulatzea.

Deialdiaren guztizko aurrekontua 650.000 eurokoa da, eta 2018, 2019 eta 2020. urteetarako banatuko da.

I+G+b-an egiten diren ekarpenak Euskal Hiri Agenda garatzera bideratzea da agindu honen asmoa, merkatuaren eta gizartearen eskarira bideratutako ikerketa eta zientziak eta teknologiak bultzatutako ikerketa bateratzea bultzatuz, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planean (ZTBP) eta Espezializazio Adimendunaren Estrategian (RIS3) ezarritakoarekin bat etorriz.

Hirien eraberritze integralaren inguruko I+G+b proiektuen garapenak, Euskadiren berehalako eta etorkizuneko erronkei aurre egin eta herritarren bizikaltatea hobetzeaz gain, enpresa berriak eta enplegu berriak sortzeko aukera emango du. BAI+G+b programaren helburua, beraz, ondoko ekarpenak egiten dituzten proiektuak sendotzea da:

- Hirien eraberritzeari ikuspegi integral bat ematen diotenak, gizartean, ekonomian eta ingurumenean berrikuntza-elementuak barnean hartuz.
- Alderdi hauek gehitzea sustatzen dutenak: digitalizazioa, auzo kalteberen eraldaketa, zahartze aktiborako soluzioen, ekitatearen, kulturaren... sustapena.
- Auzoen berehalako premiei erantzungo dieten soluzioak, etorkizunean antzeko ezaugarriak dituzten beste auzo batzuetan ere aplikatu ahal izango direnak.

Diru-laguntzaren kopurua subentzionatu daitekeen gastuaren % 80ra artekoa izan daiteke, eta 100.000 eurokoa da gehienezko muga. Eskaerak aurkezteko azken eguna 2018ko irailaren 20a izango da (egun hori barne), eta online aurkeztu behar dira euskadi.eus webgunean.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

HITZARMENA ZARAUZKO UDALAREKIN AZKEN PORTUN ALOKAIRU SOZIALEKO 25 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Zarauzko Udalaren artean hitzarmen bat sinatzea onetsi du Gobernu Kontseiluak, Gipuzkoako herri horretan, Azken Portu 7 eremuan zehazki, alokairu sozialeko 25 etxebizitza eraikitzeke.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren helburuen artean dago babes publikoko etxebizitzak eraikitzea, errenta-ahalmen urria duten eta merkatu arrunterako sarbiderik ez duten familientzat, ziurtatu diren etxebizitza-premiak dituzten udalerrietan, Zarautzen, besteren artean.

Zarauzko Udalak konpromisoa hartu du 1.860 m²-ko azalerako partzela dohainik lagatzeko eta hirigintza-plangintzan behar diren aldaketak egiteko, adostutako eraikuntzari ekin diezaioten. Bere aldetik, Etxebizitza Sailak beregain hartu du eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuak egiteko betebeharra, eta baita obren exekuzioa ere, lau urteko epean.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

**MBT PROGRAMAK 1.800.000 EURO BIDERATU DITU EUSKAL
MERKATARITZA SEKTOREKO BERRIKUNTZA, KALITATEA ETA
TEKNOLOGIA BERRIAK SUSTATZEN LAGUNTZERA**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Gobernu Kontseiluan MBT (Merkataritzako Bulego Teknikoak) laguntza-programa onetsi du; programa txikizkako merkataritza-banaketaren sektoreari aholkularitza esperimentatua eta kalitatezkoa ematera eta sailetakoa politiken partaide egitera bideratuta dago. Programa honen helburua da berrikuntzarekin, kalitatearekin eta teknologia berriekin lotutako prozesuak sustatzea eta udal-mailan edo banaketa-katean elkarlaneko estrategiak bultzatzea.

Ekitaldi honen nobedadea programarekin bat egingo duten bulego teknikoen kopuruak gora egin duela da; egun 38 daude eta 47 izango dira (gorakada hiru lurraldeetan banatzen da, hiru hiriburuetan, bai eta bulego bat Basauri, Gernika eta Errenteria udalerrietan ere).

Euskadiko Merkataritzako Bulego Teknikoak autonomia-erkidegoko merkataritza-enpresei laguntza emateko aktibo nagusietako bat dira, eta profesionalen kidego baliotsua eratzten dute, politika publikoak koordinatzeko eta kudeatzeko. Sektoreari lotutako jarduerak eraginkortasunez betetzeko beharrezko aholkularitza eta trebezia ematen dute. Hori guztia, merkataritzaren arazoen hurbiltasunetik eta ezagutzatik.

Euskadiko MBT sareari atxikitako bulego bakoitzak, gehienez, 38.500 euroko diru-laguntza jasoko du. Laguntzen zenbatekoak bulegoko zerbitzua betetzen duen arduradunaren denbora osoko kontratazio-kostuen % 86,7ra artekoak izan ahalko dira, urtebetez. Nolanahi ere, bulego bakoitzak, gehienez, 38.500 euroko diru-laguntza jasoko du. Programa honetarako 1.809.000 euroko aurrekontu osoa onetsi da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 1.650.000 EURO ONARTU DITU ENPRESETAN EUSKARA PLANAK EGITEN LAGUNTZEKO, LANHITZ DEIALDIAREN BITARTEZ

- **Lerro honen diru-laguntzei esker, iaz 42.664 langile dituzten 138 enpresa lagundu ziren**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak, bere gaurko bileran, 1.650.000 euro onartu ditu Lanhitz deialdirako. Lerro honen helburua da Euskadiko enpresei diru-laguntzak ematea euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko beren lantokietan. Laguntza hauek jasoko dituzten enpresek diru kopuru bat izango dute euskara planak garatu ahal izateko. Iazko deialdiaren bitartez 42.664 langile dituzten 138 enpresa lagundu ziren.

Finantzazio-lerro hau eremu sozio-ekonomiko pribatuan euskararen erabilera sustatzeko dagoen bide garrantzitsuenetako bat da. EAEn lantokiak dituzten entitate pribatuen lehen euskara-planaren diseinua eta kudeaketa-plana laguntzen dira diruz deialdi honen bidez. Zehazkiago, euskara-planak modu sistematizatuan diseinatzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzeko eratu zen Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) ezarritako helburuak eta jarduerak enpresa pribatuetan gauzatu ahal izateko berariazko diru-laguntza izan nahi du.

Deialdi honen bitartez, gehienez ere 35.000 euroko diru-laguntza jaso dezakete eskatzaileek eta 1.000 eurotik beherako diru-laguntzarik ez da esleituko. Halaber, proiektuaren autofinantzaketak gutxienez % 40koa izan behar du. Gainerako % 60rainoko diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok helburu bertsurako eman ditzakeenekin. Eskatzaileak 250 langile baino gehiago baditu, berdintasun-plana egin eta aplikatu beharko du.

Iaz 138 enpresa lagundu ziren deialdi honen bidez: 87 Gipuzkoan, 44 Bizkaian eta 7 Araban. Sektorerei dagokienez, % 54 zerbitzuetakoak izan ziren eta % 47 industriaren sektorekoak. Lagundutako enpresa guztien % 59 txikiak izan ziren (50 langile baino gutxiago), % 60 ertainak (50 eta 250 langile bitartean) eta, azkenik, % 34 enpresa handiak ziren (250 langile baino gehiago).

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 400.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU MICAELA PORTILLA ESKOLAREN JARDUERA DIRUZ LAGUNTZEKO, ORGAZTARREN DORREAREN ZAHARBERRITZEA BURUTU DEZAN

- **Diru-laguntzari esker, langabezia dauden zenbait gaztek lanbide-heziketa jaso eta monumentu kalifikatu honen birgaitzean parte hartuko dute**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, gaurko bere bileran, 400.000 euroko diru-laguntza onartu du Añanako Kuadrillaren alde. Bere xedea da Micaela Portilla Eskolaren jarduera finantzatzea 2018. urtean zehar. Eskola horri esker, langabezia dauden zenbait gaztek lanbide-heziketa jaso eta Orgaztarren Dorrearen birgaitzean parte hartzen dute.

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen diru-laguntzak Añanako Kuadrilla du xede, Arabako foru-erakunde hori baita Micaela Portilla Tailer Eskola bultzatu zuena. Enplegu-Prestakuntza zentro horrek Arabako Foru Aldundiaren, Kutxabankeko Vital Fundazioaren eta Lanbideren finantzazioa jasotzen du eta aipatutako eraikina birgaitu eta zaharberritzeko eginkizuna dauka.

Eskolaren bitartez, langabe gazteek lanbide-heziketa jasotzen dute urtero, ogibide ezberdinen inguruko profesionaltasun-egiaztagiria lortu ahal izateko: igeltserotza historikoa, armatzeko aroztegia eta hargintza. Heziketa horrekin batera, aipatu langabeek jarduera profesional bat gauzatzen dute, egiazko obra batean lan eginaz: kasu honetan, Orgaztarren Dorrearen (Iturriestaria-Lantaron) birgaitzea. Eraikinak eskola bera hartzen du barne eta Monumentu Kalifikatua izendatua izan zen 2002. urtean.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UN PLAN INTEGRAL DE MOVILIDAD ELÉCTRICA PARA LOS AÑOS 2018-2020

- **Prevé un presupuesto de 494 MM de euros centrado principalmente en la electrificación del transporte público, la creación de una red de puntos de recarga y ayudas a la adquisición de vehículos eléctricos para particulares, empresas y administraciones públicas**
- **Recoge un plan de acción con 63 iniciativas a ejecutar entre 2018 y 2020 y el compromiso de proyectarse al año 2030 actualizando los objetivos e incorporando nuevas acciones**
- **Prevé un escenario 2020 con 4.800 vehículos eléctricos matriculados y una red de 35 puntos de recarga de alta potencia en Euskadi con un aumento del 20% de pasajeros en transporte colectivo eléctrico**
- **PIME 2020 contribuye a la diversificación energética, favorece la gestión inteligente de la red eléctrica y enriquece la transformación industrial del sector de automoción generando nuevos modelos de negocio**

El Consejo de Gobierno ha definido un Plan Integral de Movilidad Eléctrica (PIME) para el conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi con el fin de impulsar la movilidad eléctrica de forma coordinada con los agentes públicos y privados que componen la cadena de valor además de estimular su contribución al desarrollo socio-económico del territorio y a la generación de conocimiento.

PIME 2020 recoge un diagnóstico del estado de la movilidad eléctrica en Euskadi y concreta un plan de acción con 63 iniciativas que afectan a particulares, empresas y administraciones públicas.

El Gobierno Vasco, consciente de la necesidad que existe de avanzar hacia un modelo de movilidad más sostenible, asume el compromiso de redactar la extensión del este plan con el horizonte puesto en el año 2030.

En todo caso, el marco de actuación del PIME 2020 supera el radio de acción de lo que se recoge en el documento, y entronca especialmente, con las acciones y proyectos estratégicos en vigor en el marco de lo que es la estrategia [energibasque](#) donde confluyen, a su vez, los objetivos y ejes de la [Estrategia Vasca de Energía 2030](#) y del [Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2020](#) en la que se determina, a su vez, la Especialización Inteligente RIS 3 en la que la energía es un ámbito prioritario de actuación en el I+D y el desarrollo tecnológico de Euskadi.

Objetivos estratégicos de PIME 2020

- ✓ Avanzar hacia una **movilidad más sostenible** en Euskadi mediante el aumento de la demanda y uso de medios de transporte eléctricos.
- ✓ Impulsar el **desarrollo de la economía y conocimiento local** aprovechando las necesidades de productos, servicios, innovación y recursos que plantea la implantación del vehículo eléctrico a nivel internacional.
- ✓ **Crear un entorno favorable para la adopción de la movilidad eléctrica** por la **sociedad y empresas** mediante el ejemplo propio, la formación, promoción y sensibilización.

